



ZER suposatzen du nerabe izateak?

Iritzi artikulua

Jaione Uriarte
DBHko arduradun pedagogikoa

ai arizmendi
ikastola

NERABEZAROA, ALDAKETA-AROA:

NOLA LAGUNDU IRAULTZAREN ERDIAN KONFIANTZATIK GARATZEN?

Nerabeak! Beti helduok nahiko genukeenaren kontrakoa egiten, ez digute ezer kontatzen eta soilik lagunen iritziak axola die, ez dakite ezer bizitzaz eta dena dakitela uste dute, ez dira ezertaz arduratzen... Zenbat aldiz entzun ditugu hauek edo horrelako beste esaldi batzuk nerabeen inguruan? Askotan! Eta seguru guk ere, horrelakoren bat esan dugula noizbait! Baina zer dago horren atzean? Egia al da edo topikoak baino ez? Lehenengo nerabe izatea zer den ulertu behar dugu beraien jokabideen zergatia ulertzeko.

Zenbait animaliatan gertatzen diren muda garaiekin konparatu izan dute zenbait adituk nerabezaroa. Badirudi otarrainek esaterako, jaiotzatik babestu dituen eta poliki-poliki gogortzen joan diren oskola galtzen dutela, eta une batez, bigarren oskol hori sortu eta gogortu bitartean, babesgabetasun egoeran gelditzen direla. Bada haxe da, hain zuzen ere, gure nerabeei gertatzen zaiena.

Urte askotan zehar, haurrak izan dira. Gurasoek babesten dituzte ordura arte baina momentu bat iristen da zeinetan haur-identitatea utzi eta heldu izateari ekin behar dioten eta honek ezinbestean dakar jatorrizko familiaren babesetik atera beharra. Une horretan, oskolik gabe gelditzen dira eta oso zaugarriak bihurtu daitezke. Beraientzat gainera, dolu bat da, izan diren haur horri agur esan behar diote eta hori dela eta pertsona berak oso jarrera desberdinak adieraz ditzake: agresibitatez erantzun eta urrundu daiteke egun batean eta beso artean ezkutatu eta babes bila gerturatu hurrengo batean. Beldur ugari agertzen dira une horietan: haztearen beldurra, ez haztearena, gurasoen antza izatearen beldurra, bakarrik egotearena... eta aldi berean, heldu ausartaren rola jokatu nahi dute, ez dute bakardadea sentitzen dutela adierazi nahi. Honi gehitu behar diogu fisikoki ere aldaketa ugari jasaten dituztela. Bat-batean ispilura begiratu eta errekonozitzen ez duten irudi bat ikusten dute, ezaugarri ezberdinak dituen gorputz batekin egiten dute topo, eta honek ere, dolu bat suposatzen du, aurretik zuten horri agur esan eta datorren horren onarpenari ekin behar diote. Baina zer da orduan behar dutena? Zein da gure egitekoa?

Lehenik eta behin ulertu behar dugu nerabezaroen faktore ugariaren arteko elkarrekintza gertatzen dela: batetik, nerabe horren lehen haurtzaroen gertatu denak eragin handia izango du, izan ere, lehen eskolaren eraketan eragina izan duten faktoreak berriz azaleratuko dira

garai honetan. Baina nola? 0-3 urte bitartean haurrak oso konektatuta daude beraien beharrekin eta behar horiek adierazten dituzte behin eta berriz. Behar horiek asetu ezean, haserrea, amorrua... adierazten dituzte negarraren bidez, agresibitatearen bidez edo beste zenbait jokabideren bidez. Bada gauza bera gertatzen da nerabezaroan. Eta lehen etapa horretan ikasi dutenak, jaso dutenak... lotura handia du aro berri honetan gertatuko zaienarekin. Nor direla aldarrikatuko dute, existitzen direla adieraziko dute behin eta berriz, bakoitzak dakien modu horretan.

Baina ez dira barne faktoreak soilik etapa honetan eragina dutenak. Inguruan dituzten helduen begiradak ere, eragina dauka, inguruan dauden heldu horiek nerabezaroarekin izandako esperientziek asko baldintzatuko baitute nerabearekin izango duten eskuhartzea. Helduek bizi izandako esperientzien arabera, nerabeekin harremanak eraikitzeke moduak eta euren ekintzei emandako erantzunak desberdinak izan daitezke, eta horren baitan garatuko dira nerabe horiek. Nerabezaroa praktikatzeko modua, guk helduok, zaintzen ditugun moduaren baitan garatuko da.

Beraz, gakoa da beraien inguruan gauden helduon rola. Familian bereziki, bertan jarraitzen dugula transmititu beharko diegu, helduaren beharra baitute; baina dagoeneko ez dute besarkada eta muxuek horrenbeste balio eta beste modu batean ikasi behar dugu bertan gaudela adierazten. Oreka topatu behar dugu gertu egon arren, beraien intimitatea errespetatuz; eta baita beraien munduan gertatzen den horrekiko interesa adierazi eta beraien kontuetan muturra sartzearen artean ere. Debekuak dagoeneko ez du balio garai honetan eta negoziatu daitekeena eta ezin daitekeena bereizten lagundu beharko diegu. Beraiekin batera, gure rola ere, aldatu egiten da eta egin dezakegun onena, beraiekin batera ikasten ari garela, garatzen goazela eta ahal dugun eta ondoen egiten ari garela transmititzea da, ditugun akats guztiekin. Izan ere, beraien ispilu zuzena izateari utzi badiogu ere, erreferente izaten jarraitzen dugu eta esaten dugun horri baino gehiago erreparatzen diote egiten dugunari eta egiteko dugun moduari. Izan ere, garai honetan gehienetan beraien berdinkideengana jotzen duten arren, taldearen onarpena etengabe bilatu arren, lagunak autoirudiaren eraikuntzan ispilu bezala erabili arren, beharra dutenean, gugandik jaso duten horretara joko dute eta hori erreproduzitzeko dute beraien harremanetan.

Eta ikastolatik zer? Bada gauza bera. Beraien zaintza dagokigu guri ere! Beraien gaitasunak identifikatu eta baliostea dagokigu bereziki, nor diren deskubritzen laguntzea horretarako testuinguru egokiak eskainiz. Beraien jakinmina eta mundua "jateko" gogoa piztuta mantenduko duten testuinguruak asmatzea dagokigu eta bidean, beraien zailtasunak identifikatu eta kudeatzen laguntzea, beraien bidelagun izatea, hain zuzen ere.

Iraultzaren garai honetan, konfiantzaz begiratu behar ditugu, izan ere, aditu batek zioen bezala, nerabezaroa da beraiek legitimoki behar duten eta merezi duten hori eskaintzeko azken aukera. Ondoren helduak izango dira eta beraien bide propioari ekingo diote, guk azken fase honetan motxilan sartzen lagundu diegun erraminta kutxarekin.

Horretarako, garrantzitsua da helduok gure burua ere zaintzea, izan ere, gure zauririk sakonenak pizteko gaitasun handia dute nerabeek, gure barruan osatu gabe dauden zauri horiek azaleratzen dira eta horiek landu eta osatu ezean, gure eskuhartzearen norabidearen kontrola ez dugu guk izango. Baina ez dira soilik gure zauriak osatu behar eskuhartzea behar den bezalakoa izan dadin, ordura arte balio izan diguten eskemen edo marko mentalen

sendotasuna ere, proban jartzen da sasoi honetan, gehiegizko zurruntasunak ez digu lagunduko eta eredu izan nahi badugu, adostasunetara heltzeko malgutasuna martxan jarri beharko dugu.

Azken finean, direna izaten utzi behar diegu, nor diren deskubritzen lagundu bai, baina beraien bizitzaren protagonista bakarrak izaten utziz. Pertsonalitate propioaren defentsa egiten eta beraien buruanga segurtasuna izaten utzi behar diegu, nor diren, zer izan nahi duten eta zer lortu nahi duten erabaki dezaten eta horren bila joan daitezten. Beraien nahiak, balioak eta beharrak errespetatu behar ditugu, hauek errealitatean era egoki batean adierazi ditzaten.